

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko otsailak 25 / IV. urtea / 116. zenbakia

Barañaingo antzokia, zain

Barañaingo antzokia geldirik dago, udal baten plangintza okerrak eta ezin ikusiak jota. Nafarroako gune artisikorik garrantzitsuenetakoa, horrela, zain dago, kulturarekin zerikusi gutxi duten harremanen eta eztabaiden zain. Kultur arloko jendeak, bitartean, atsekabeturik eta kezkatuturik ikusten du Nafarroan egin den proiekturik ausartenetakoaren behin-behineko porrota. Behin-betikoa ote?



OSKAR MONTERO

Lur deslata

PILI YOLDI



Zurrumurru
batetaz

Michelle Pfeifferenganako desioa eta bere burua erretzen duen amodio suteaz gaudituz, Daniel Day-Lewis bere orain arteko emaztegaia den Winona Ryderekin ezkondu da. Pantailatik zintzilik gauden amodio kontuzaleak, hain legala eta garbia den gizona ikustean hunkiturik gaudela, bi emakumeen artean nola moldatuko ote den jakin gabe, pasioaren poderioz bere maitalearen besoetan noiz eroriko zai... aretoaren atzekaldean mugimendua hasten da. Zinefiloak hainbeste izorratzen gaituen marmara eta zaratarekin batera, gure atzean eserita dagoen jendea ateratzen hasten da, presarik gabe baina etengabe. XIX. mendeko fru-fru eta aristokraten finenziaren artean sua dagoela aditzen dugunean ametsetan gaudela dirudi. Sua? non? pelikulan? Iruñeko Principe de Vianan, gauden lehenbiziko aretoan sua badagoela! Pantailari zeharka noizbehinka begiratuz, ez dugu ezer ulertzen. Gure oinak zapalduz ihes egiten hasten dira ondokoak, pelikula moztu eta argiak pizten dituzten une berean. Ia hutsik gelditu den aretoan, ahots haserre baina ezin haserreago batek oihuka: «idiota más que idiota ¿donde había fuego?». Ikuslegoa dexente gutxitu da Scorseseren zinta berriro martxan jartzen denean. Eta ez gara kokatzen: urte t'erdia pasatu da gure protagonista ezkondu zenetik. Kakazaharra, gezurrezko su oxtia horrengatik. Lehen zerbait oso grabea gertatu behar zuen pelikula bat mozteko (amodiozko plano bat, modestiaren aurkako muxu beroak edo —Erribera aldean— gaez erregatzera joan beharra), filme baten kontenplazioa oso gauza garrantzitsua izaten bait zen. Gaur egun, ezinezko amodioak edo sufri-mendu ikaragarria daramaten maitaleek ez dute jendea bere munduaz aparte murgiltzeko indarrik. Zinean bezala, gizakiak aidamenekoaren oinak eta burua zapalduko luke bizia arriskuan jartzen duen komentario edo baten sudurraren susmoa besterik ez den zurrumuruarengatik. Zineak duen majia eta indarra galtzearen omen dago. Bestela, gu —pelikulen barruan amets egiten dugunok— betirako galtzen ari gara. Ah! ateratzekoan hobereña jakin izan genuen; palomita poltsa baten erredua izan omen zen erruduna.



Bera

Gure Txokoa bigarren sokatiran



Herri-kirol jaialdi ederra ikusi zen

IRUNEA

Joan den igandean Herri Kirolean egun berezia izan genuen Nafarroan. Alde batetik Euskadiko Sokatira Txapelketako jardunaldi bat jokatu baitzen Beran eta bestetik Donezteben aizkora apustu garrantzitsua.

Beran goizeko 11etan hasi zen proba. Eztegara Frontoian 560 kiloz azpiko gizonezko sei talde eta 480z azpiko emakumezko bost talde aritu ziren elkarren lehian. Nahiz gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan Nafarroako ordezkariak baziren, Lesakako Beti Gazte taldekoak gizonetan eta Berako Gure Txokoa taldekoak nesketan, alegia. Gainontzeko taldeak honakoak

izan genituen: 560 kiloz azpiko kategorian Goiherri, Iparralde, Eskoriatza, Lagunak eta Torrekolanda 'B'. 480 kiloz azpiko kategorian Gaztedi, Torrekolanda, Badaiotz eta Haitzazpe.

Mutilen artean Goiherrikoak izan ziren nagusi txanda guztiak irabaziz; bigarren tokia Iparralde, hirugarrena Beti Gazte, laugarrena Eskoriatza, bosgarrena Lagunak eta seigarrena Torrekolanda 'B'. Nesketan berriz Gaztedi izan zen lehena erraztasun handiz txanda guztiak irabazi ondoren, bigarren tokian Berako Gure Txokoa neska gelditu ziren (maila handiko taldea direla erakutsi zuen), hirugarrena Haitzazpe, laugarrena Torre-

kolanda eta bosgarrena 'Badaiotz'.

Bestalde, Doneztebeko frontoian eta goizeko 12.30etan hasita, Juan Manuel Erasun aiarraren (Gipuzkoa) eta Felix Etxeberria sunbildarraren (Nafarroa) arteko aizkora apustua jokatu zen. Hamar kanaerdiko eta 60 ontzako hamar enbor ebakitzea zuten egin beharreko lana. Etxeberria erraz nagusitu zen hasieratik, eta lan erditan zeudelarik minututik goitiko diferentzia ateratzen zion bere aurkariari. Heldu den igandean, otsailak 27, goizeko 12.30etan eta Doneztebeko frontoian Nafarroako Patxi Mindegia eta Antonio Senosiain aizkolarrien arteko apustua ikusi ahal izanen da.

Bastida

Hiru Ibarren Sindikatuak erizain zerbitzu berria jarri du etxeetan

L.E./BAIONA

Etxeetan ibiltzen diren erizainen zerbitzu bat sortu du Bastidako kantonamenduan eskualdearen antolakuntzan dabilen Hiru Ibarren Sindikatuak. Bastida, Bida-xune eta Hazparneko kantonamenduko ordezkariak osatzen dute Sindikatuak, 17.000 biztanle bilduz. Momentuko, 36 pertsona laguntzen ditu zerbitzu horrek baina kopuru hori goratu nahi dutela azaldu dute.

Ospitalera joatea ez da beti aterabide hoberena izan eri diren

edo laguntza behar duten jendeentzat, etxeko girotik baztertuak direlaketoz eta kario ateratzen delaketoz gizartearentzat. Gainera, duela urte bat Hazparnen zegoen klinika hertsit baitzen, Baiona edo Kanboraino joan behar dute artatzeri eriek. Hori ikustean, etxean egoten diren jendeen laguntzeko eta artatzeko zerbitzua sorrarazi zuten hiru kantonamenduetan.

CRAMA, nekazari munduko eritasun gastuen ordaintzeko aseguru elkarteak eta DDASS gizarte zerbitzuetako zuzendari-

tzak dirulaguntza ematen diote 8 erizain, idazkari bat eta koordinatzaileak osatzen duten elkarteari. 36 pertsonaz arduratzen ahal da orain baina aurrekontuaren gorapena espero dute 40ra igotzeko kopuru hori.

Eri edo ahal eskasean diren pertsonen artatze medikoak ematen dizkiete, eta eguneroko beharren egiteko laguntza ere ekartzen du taldeak. Bi pertsona mota izaten ahal dira lagunduak: bizirako laguntza behar duten jendeak eta autonomia biltzen ari diren eriek.

Donamaria

Golbaiko pista salatu du ANAT-LANE taldeak

IRUNEA

ANAT-LANE talde ekologistak udalak Txaruta-Belaten ireki nahi duen pista (Golbaiko pista) salatu du prentsa ohar baten bidez. Taldearen arabera, pistak ez luke onurarik ekarriko, eta bai aldiz kalte handiak. Hori dela eta Nafarroako Gobernuo Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro Sailari pista zabaltzeko baimena ez ematea eskatu du taldeak.

Pistak Belatetik Zeberia erre-karen iturbururaino eta Leurtzako urtegietarainoko bidea irekiko luke, eta sarrera zuzena izango litzateke aurrerantzean zona horretara heltzeko. «Mendi ibilgailuak, zaborrak eta abarren pilaketa eragingo luke», dio taldeak «eta, ezinbestez, ingurugiroarendako kalteak sortuko litzuzke». Ekologistek, halaber, pistari baimena ematea «harrigarria» dela diote, «Belateko tunela eta errepide berria zela eta egin zen ingurugiro azterketak, baztertu egin zuelako Zeberia errekatik zehar zihuan bidea, kalteak zirela eta». Udalak arrazoi ekonomikoak argudiatu ditu pista egiteko, turismoa bultzatuko lukeelakotan, baina kontrako eragina izango lukeela dio ANAT-LANEK.

Baztan

Data berriak baso ustiapenen dirulaguntzetako

IRUNEA

Baso ustiapenei Europako Elkartek ematen dizkien dirulaguntzei buruzko informazioa eskaintzen ari da egunotan Forresna-Zurgaia elkarteak Baztanen eta Bidasoan. Joan den Nafarkarian argitaratu genuen honi buruzko berria, baina datak aldatu egin ditu elkarteak. Hurrengo egunetarako egutegia hau da: gaur, hilak 25, Urdazubin eta Zugarramurdi izanen dira; astelehenean, hilak 28, Donezteben; asteartean, martxoak 1, Sunbilla; asteazkenean, Etxalarren; ostegunean, Lesakan; ostiralean, martxoak 4, Goizuetan, eta astelehenean, martxoak 7, Arantzan eta Igantzin. Asteartean, martxoak 8, Beran, eta asteazkenean, Leitzan. Ostegunean, Araizko bailaran, eta ostiralean, martxoak 11, Baztanen berriro ere. 9etatik 14.00ak bitarte izanen dira udal-erretan elkarteak, eta bankuko kontu korrontea, lurren paperak, plana eta jabearen dokumentazioa eraman behar da.

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Aupika


Ohetik altxatu berria lanera nindoan. Supitoki, izkina batean eta aurrez aurre Caldereria kaleko taberna bateko zerbitzariarekin egin nuen topo. Ez nuen neska hura askorik ezagutzen, baina oso jatorra ez zela iritzi nion, eta ez nuen uste berak nitza iritzi hobea izanen zuenik. Haa-tik, ez genuen begirada bestenorabait zuzentzeko betarik izan, eta halabeharrez elkarri agur esan behar izan genion. Nik ahopeka —iratzarri berritan ez nuen deiadarka aritzeko inolako gogorik— agur esan nion. Berak niri, ozenki eta beti bezain harro, aupika. Ezatsegina zela uste nuen, eta nire usteak ez ziren ustelak, ezen jatorra den norbait ez da hortik zehar aupikaka ibiltzen.

Tamalez, azken bolada honetan aupika bezalako agurrak modan jarri dira. Aupa esamolde jatorra abiapuntutzat hartuz, Alde Zaharreko hainbat lekutan adio esateko dozenaka modu sortu dira, filologia tesi mardula osatzeko behar adina. Esaterako, *jarauteraz* apa, epa, iepa, iep, iepu, afa eta aufi bezalakoak erabiltzen dira, eta *caldererieraz*, berriz, aupi, aupi-



ka, aupiki, iepi, eta upi esamoldeak. Halaber, agur hitzak ere hainbat fruitu eman ditu. *Jarauteraz* agurtxo, eta *caldererieraz* agurikos. Aranista garbiza-lea ez banaiz ere, banaiz esamolde horien aurkakoa, gehienbat darien enroilatu zatar usaina dela eta. Aupikaka eta antzekoetan ibiltzen den edonor derrigorrez enroilatu zatarra denik ez dut esanen, baina argi dago enroilatu zatarra izateko aupikaka ibiltzeak asko laguntzen duela.

Azkenik, agurrei buruz ari naizela, nik ere norbait agurtu nahi dut. Atrebentzia ez bada, seguru asko lerro hauek irakurriko dituzten Esthertxo lehen-gusina eta txikitatik lagun mina izan dudana Aitor Balbar, berde koloreko jantziak maite ez dituela eta bolada luze samarra itzalpean pasatuko duen hori agurtuko ditut. Biontzat, beraz, aupika eta agurtxo.



Barañaingo Antzokiak alkatearen dimisioa eta garai istilutsua eragin du.

OSKAR MONTERO

Udala gobernua-
rekin harremanetan
ari da, finantzabi-
deak aztertzeko,
baina mantso eta
itxaropen handirik
gabe.

antzokiaren finantzaketa plana egin genuen, baina oraindik inork ez digu eskatu. Jakina, punta-puntako egitaraua prestatuz gero, ehun milioi pezeta gasta daitezke, baina egin daiteke 20 milioi pezetako egitaraua ere. Beraz, mantenimendua ehun milioi pezetakoa dela esateak ez du balio».

ETORKIZUN ILUN ETA ZAILA

«Ez da inolako irtenbiderik aurkitu proiektua errentagarria izan dadin», berretsi du Alberto Ardanaz Eako zinegotzi eta antzokiaren defenditzaile sutsuak, «adibidez esplotazio mistoaren bidez, Udalaren eta enpresa pribatu baten artean. Gayarre antzokia horrela dago, baina ez dira ausartzen irtenbideak bilatzera, eta Claveroren kontrako mendeku gisa erabili dute afera, argi eta garbi».

Egun, Udala Nafarroako Gobernuarekin harremanetan ari da, baina alkatearen hitzek eta antzokiko lanak bertan behera uzteak garbi azaldu dute mantso eta itxaropen handirik gabe doazela. «Elkarrizketak hasi berriak dira, eta hasieratik Iruñerria osoarendako bazen, garbi dago Gobernuak parte partu behar duela finantzaketan. Hala ere, orain ezin da ezer esan». «Pilota gobernua teiltatzen dago», azpimarratu du Erdozainek, «eta bere jarreraren arabera, bukatu egingo dugu antzokia, edo bota egingo dugu, etxebizitzak egiteko eta dirua berreskuratzeke. Beste edozein aukera Udala hipotekatzea litzateke, eta badira hau baino behar handiagoak herri honetan».

Proiektuaren aldekoak, ordea, borrokatzeko prest daude, izan ere. «Horrelako eraikuntza botatzea astakeria litzateke», dio Ardanazek, «eta aurrera egingo dugu. Udal guztiek dituzte zorrak, baina lanak egiten dituzte, hori baita beraien egin beharra». Alkatea ere ez dago orain arte eraikitakoa botatzeko prest. «Nafarroako Gobernuak parte hartu nahi ez badu, 850 toki dituen aretoari beste erabilerak eman beharko genizkioke, garestiena eszenatokia baita. Hori gabe, mintzaldiak, ikuskizunak, edo zinema jartzeko erabili beharko genuke, baina ez genuke, inondik inora, botako».

Afera iluna, beraz, askoren hitzetatik antzematen baita Iruñean bertan eta Gobernuan ez dutela oso begi onez hartu proiektua, kontuan harturik Alfredo Jaime hiriburuko alkateak beste auditoriuma duela bere begiko proiektua. Nahasketa gehiegi antzoki eder huts batendako.

Barañaingo antzokiko lanek geldirik diraute duela urtebete t'erditik hona, Udalean azken urteotan izandako istiluen ondotik. Nafarroako antzoki handiena eta modernoena izan zitekeenari, horrela, ez zaio oraingoz etorkizun handirik igartzen, Udalean ere ez baitute oraindik jarrera bateratua.

Istiluak taula gainean

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Barañaingo Kultur Zentroa lotsagarri bihurtzeko bidean doa, dagoeneko ez bada. Kultur arloko Nafarroa osoko proiekturik garrantzitsuenetakoaren erakuntza nagusia —antzokia— egun geldirik dago, 350 milioi pezeta inguru gastatu ondoren, eta aterabidea ez da erraz antzematen. Kultur zentroaren gainontzeko bi eraikuntzen beharrik —musika kontserbatorioa eta kultur etxea— inork ez du zalantzan jartzen eta luze gabe irekiko dira. Antzokia edo auditoriuma, baina, bestelako afera da, eztabaida guztien sorburua bilakaturik.

Hilaren 7an onartu zuen Udalak kultur etxeko eta musika kontserbatorioko lanak bukatzeko hitzarmena. Antzokia, horrela, bazterrean uzten zen, lanei berriro ekiteko datarik gabe. Batzuek dago errentagarria eta onuragarria da oso, beste batzuek herriarendako izugarritzko zama dela aipatzen dute. Bada orain arte eraikitakoa bota behar dela dioten ere. Nahasketa izugarri honen atzean Gregorio Clavero aurreko alkatearen gestioa aipatzen dute denek, eta «mendeku politikoa» aditzen da ahots frankotan. Nolanahi ere, herrialde osoko antzoki txukunenak —edozein ikusizunendako ezaugarri tajuzkoak

edukiko lituzkeen bakarra, 850 butaka, 600 metro koadroko eszenatokia eta orkestrerendako pezo 7arekin— itxita jarraitzen du urtebete t'erditik hona, eta plangintza eta ideia falta kezkarria antzematen da afera osoan.

BARANAIN TOKI EGOKIENA?

Nafarroan horrelako eraikuntza-aren behar handia izanik ere, aditu batzuek zalantzak dituzte udal batek horrelako zentroak sortzen dituen gastuei aurre egiteko duen ahalmenaren inguruan, baina udalean eskualdeari begira egin dutela lan azpimarratu dute. «Kultur Zentroa Iruñerriarentzat zegoen pentsatuta, haste-hastetik», azaldu du Gregorio Clavero alkate ohi (PSOE) eta proiektuaren bultzatzaile nagusienetakoak, «eta Barañaingo Udalak ez zuen handinahikeririk izan afera honetan. Aldiz, iruditzen zitzaigun horrelako lekua guretzat eta Iruñerria osoarentzat onuragarria izango zela». Elkarrizketak izan ziren, beraz, Nafarroako Gobernu eta Espainiako Arte Eszenikoak eta Musika Institutu Nazioanalarrekin (INAEM), dirulaguntzak bideratzeko, eta dena «ongi» joan zen, PSOEren barruan iskanbilak izan ziren arte. Alkatea bere taldearekin haserretu zelarik, hasierako proiektuan egindako aldaketa batzuei udalbatzak ez zien

oniritzirik eman, eta dimisioa aurkeztu zuen Claverok. Honen ustetan, eta baita Javier Chivite kultur koordinatzaile ohiaren ustetan ere, mendeku politikoa izan zen erabakia. «Aldaketa eszenatokian paratu behar zen orratza izeñeko tramankuluari zegokion», dio Chivitek, «eta teknikari guztiak bat etorri ziren alda-

A skok zalantzak dituzte udal batek horrelako gastuak har ditzakeen, baina eskualdeari begira zegoen pentsatuta hasieratik.

keta orduan egin behar zela esatean, baina Udalak ez zuen onartu, inolako arrazoirik gabe». Orduz geroztik —1992ko urritik— geldirik dago proiektua.

Beste alderdietako zinegotziendako, baina, Claverok berak eramandako gestio okerrari bota behar zaio errua. «Hasieratik bideragarritasun arazo izugarria izan da», azaldu du Mikel Erdozain HBko taldekoak. «Claverok esaten zigun Gobernuarekin harremanetan ari zela, eta dirula-

guntzak lortuko zituela, baina PSOEek gobernua galdu zuen eta, ezer idatzirik ez zegoenez, orain daukagu esku artean 900-1.000 milioi pezeta kostako litzatekeen proiektu bat, eta dirulaguntzarik ez. Barañainek ezin du proiektua aurrera eraman bera bakarrik». Iritzi berekoa da Juan Felipe Calderon egungo alkatea (UPN). «Ematen du Claverok Gobernuarekin hitz egin zuela eta zerbait agindu ziotela, baina azkenean atzera egin zuten. Garbi dago Barañainek ezin duela antzokiaren mantenimenduaren aurrekontua —ehun milioi pezetakoa urtero— jasan». Proiektua aurrera eramateko erabakia, ordea, udal osoak —Batzarrek izan ezik— onartu zuen hasieran. «Ardura falta eta beldurra izan genuen proiektuari baietza ematerakoan», onartu du Erdozainek, «eta bideragarritasun plana eskatu behar izan genuen. Baina kultur etxea eta kontserbatorioa oso garrantzitsuak ziren, eta dena zaku berean zetorrenez...».

Proiektua geldirik uzteko arrazoi nagusia mantenimenduaren kostua da, alkateak berak onartu duenez. Hala ere, honetan ere, badira ikuspegi ezberdinak. Aipatzen diren ehun milioi pezetan 30 ere izan litezkeela erantzun du Chivitek. «Principe de Viana erakundearen teknikaria den Ignacio Aranaz eta bion artean



VALENTÍN REDÍN

«Nire ustez badira beste lehentasun batzuk»

Antzerki zuzendari honendako, Barañaingo antzokiaren ideia ona da, baina txarra izan da aurreproiektua. «Horrelako eszenatoki bat ongi dago, Iruñean egin ezin diren gauza asko egin baitaitezke, baina aurrikuspen falta izan da. Ezin da horrelako eraikuntza aurrera eraman Gobernuaren eta Udalaren artean akordioa lortu gabe, gastuak kontuan hartu gabe». Redinen ustez, antzokia oso txukuna da, baina txikiegia. «Hor dagoen eszenatokiarekin 'Aida' ekar daiteke, kasu, baina 15 milioi balio badu, nola ordainduko dugu 850 eserlekurekin? Erabilera anitzeko aretoak oso hedatuak dira gaur egun, eta hori behar da. Bestalde, Barañain horrelako eraikuntza batendako toki aproposa izan litekeela deritzo zuzendariak, nahiz eta Iruñea nahiago. «Barañainek erabaki du hori egitea, eta ongi dago. Jakina, nik Iruñeko Armadaren Etorbidea nahiago nuke, baina ez dagoenean... hor konpon». Ez du ordea, zalantzan jartzen horrelakoren beharrik. «Nafarroan ez da azpiegiturik, soilik Gayarre daukagu eta. Hala ere, nire ustez lehentasunak markatu behar dira. Iruñean egin nahi den auditoriuma 6.000 milioitik gora kostako da, eta ulertzen dut diru hori gaur egun ezin dela gastatu».



MIQUEL ORTEGA PUJOL

«Antzokia amaitzea, premiazkoa»

Pablo Sarasate orkestrako zuzendari berriaren ustetan, Barañaingo antzokia amaitzea «premiatzkoa» da, eta bertan neurriak hartu beharra azpimarratu du. «Ez dut eraikuntza ikusi, baina kontatu didatenez, nahiko ongi dago, eta, jakina, behar handia dago». Orkestrako zuzendaritza hartu zuenetik Nafarroan daraman bi hilabete hauetan ohartu baita, ohartu, horrelako eraikuntzaren beharraz. «Gayarre antzokiak gabezia nabariak ditu, eta larriena, orkestrarendako pezoia. Oso txikia da, eta ohizko orkestra batek ezin du, inondik inora, hor jo. Geuk, nahiko orkestra txikia izanda ere, arazo asko ditugu hor jo ahal izateko. Horretaz gain, uste dut nahiko utzia dagoela antzokia. Hezetasun zoldak dira paretetan, eta hori konpondu beharra dago. Beraz, Barañaingo antzokia alternatiba ederra izango zen».

Miquel Ortégarendako, antzokiak 850 eserleku izatea ez da arazoa, eta ezta Barañainen egotea ere. «Eraikuntza eta akustika ona baldin bada, txikia izatea ez da arazoa. Are gehiago, emanaldi gehiago egin litezke eta, beraz, ez luke arazoa izan beharko. Bestalde, Barañainen egonda ere, distantzia ez zait arazoa iruditzen, gertu baita, beti ere». Nolanahi ere, Iruñeko auditoriumaren alde azaldu da zuzendaria. «Iruñeak merezi du auditorium handi bat, beti ere, beste eraikuntza osagarriak ahaztu gabe. Izan ere, Nafarroako hiriburuak kultur arloan daukan eskaintza oso aberatsa iruditzen baitzait».

Udala eta Nafarroako gobernuaren arteko eztabaidez landara, badira kultur arloko jendeari buruan dabilzkion zenbait kezka. Hori horrela izanik, eta euren iritzia nahiko argigarria delakoan, lau adituren iritzia azaltzen dugu hemen. Denek azpimarratzen dute eraikuntzaren beharra, nahiz eta zenbait ñabar-dura izan, izan ere.



MIGUEL ESPARZA

«Gobernuak bere jarrera azaldu behar du»

Barañaingo kontserbatorioko irakasle honi «ulertezina» egiten zaio Nafarroako Gobernuak afera honetan duen jokaera. «Ez dago jarrera garbirik zentroaren finantzaketan parte hartzeko, eta kontuan harturik Nafarroan ez dagoela horrelakorik, ez da logikoa». Bere ustetan, Barañain oso toki aproposa izan liteke. «Iruñean badago proiektu hau begi onez ikusten ez duen jendea, baina arazo geografikorik ez dago. Iruñerriko jende askorentzat berdin du Gazteluko Plaza edo Barañain, mugitzekotan distantziak berberak baitira. Horregatik, Iruñeko zentralismoak badirauela iruditzen zait». Hitz onak baino ez ditu Esparzak antzoki honendako. «Teknikoki edozein ikuskizun ekar daiteke, eta tokiaren aldetik eroso izango da oso, giro musikal goxoa lor baitaiteke. Antzoki handiek badute arazo bat: bete egin behar direla, eta goian dagoenari disko bat entzuten ari dela iruditzen zaiola askotan. Horregatik, eta Iruñean auditorium handia eginda ere, oso zentro ona izango litzateke mota guztietako ekitaldientzako». Esparza baikor da etorkizunaz. «Ez bada aurrera ateratzen, politikan asto gehiegi ditugun seinale. Trabak jarri ahal izango genizkioke antzoki asko izango bagenitu, baina Barañainen ausardia izan dute eta hori ongi dago».



JUAN CARLOS MUJIKÁ

«Animoa kentzen dizu»

Iruñeko Orfeoiko zuzendariak «kezkatuta eta arduratuta» dagoela dio Barañaingo Antzokiaren egoerari buruz galdetzen zaionean. «Ez ditut arrazoiak ezagutzen, baina kezkatzekoa da oso, animoa kentzen baitzitu». Orfeoian ezezik antzerki arloan ere ibilia, franko ongi eza-gutzen ditu Gayarrerren gabeziak eta arazoak. «Eszenatokia ez dago gaizki, baina azpiegitura, hau da, jendeak ikusi ez baina antzoki batek duen alde garrantzitsuenetakoa, penagarria da. Ez dago aldagarrik ez eta, harrigarria bada ere, dutxarrik. Hau da, Montserrat Caballék abestu izan du hemen eta ez dago dutxarrik berarendako. Hori guztia ongi bete zuten Barañaingo antzoki honek».

Mujikaren ustetan, Barañainen egoteak ez du zertan oztopo izan beharrik, nahiz eta hiriburu nahiago. «Herritarrek dena etxe parean nahi dugu, baina Donibane auzoko batentzako berdin da Iruñea erdian edo Barañainen. Beraz, bada arazo psikologikoa eta ikusi egin beharko litzateke jendearren erreakzioa. Nolanahi ere, ez dugu baztertu behar Iruñeko auditoriuma, inolaz ere ez». Afera honek guztiak kultura, berriro ere, ahaztuta dagoela erakusten du Mujikarendako. «Ez da hemengo arazoa bakarrik, baina bada joera eraikin guztiak Administrazioari emateko. Eta horietako asko oso toki desegokiak ditugun talde kulturalak erabili ahalko genuke. Zentzu horretan, kultura ahaztuta dute».



Gaiak eta konklusioak

● Savater jakintsu eta ospe-tsua badu lurralde honetan ere jarraitailerik. Horietako batek, azken bolada honetan, euskarari buruzko artikulua idatzi ditu Nafarroako egunkari batean.

Artikulu onak izan dira. Filosofi irakasleek badakite pentsatzen eta, batez ere, badakite mahaigaineratu nahi duten konklusioa sortuko duen diskurtsoa dotore egiten.


Onar dezagun, beraz, Ar-teta jaunaren trebetasuna Gora Euskarara ari diren artikulugile gehienena baino handiagoa dela. Aitor dezagun, esate baterako, Barañaingo zinegotzi sutsuak euskararen defentsan egin dituzkeen artikuluek ez diotela minik eginen eztabaidarako prest dagoen irakasle ilustratuari.

Jose Maria Satrustegiri gurea kultur arazoa dela entzun diot. Alegia, euskararen aurkako kultur eta sentsibilitate ezak sortzen dituela eta baliteke, neurri handi batean, halaxe izatea. Baina badira, bai Nafarroan eta baita Hegoaldeko bertze lurraldetan ere euskara batera maite ez duten gizon emakume ilustratuak.

Pentsalari argiak dira 'euskara nafar guzcion hizkuntza da' bezalako mezu ximpleak erasotzeko prest daudenak. Sentimenduak alde batera utzita, egoeraren azterketa arrazionala nahiago dute. Eta azterketa hori Nafarroatik eginagatik ere (gauza jakina da lurralde hau zuzentzen dutenak ez direla euskaltzaleenak) ez dute inoiz euskararen aldeko hitzik idazteko motiborik. Ez eta euskarak jasaten dituen mota guztietako erasoak salatzeke ere. UPNkoei bezalaxe gertatzen zaie, hots, euskarari buruz hitzegiten duten bakoitzean hizkuntza erasotzeko izaten dela. Artikulugile ilustratuok, hain argiak eta etorri handikoak izanik, Estatuko bertze lurraldetan indarrean dauden hizkuntza normalizaziorako legeak irakurri eta hemengoarekin konparatuz artikulua dotorea egin lezakete. Edota Komunikabideek, publiko zein pribatuak, hizkuntza normalizatzeko egiten duten lanari buruzkoa. Edota urtebeteko haurra haurtzaindegi euskaldunera bidali nahi duten gurasoen gorabeheri buruzkoa. Gaiak, beraz, nahi adina. Borondaterik, ordea, batera ez. Filosofo ilustratu hauei, hain argiak izan arren, etzaie horrelako gairik bururatu. Zergatik? Agian horrelakoren bat hartuz gero konklusioa beren gustokoa izateko lan hendiagia egin beharko lukestelako.



XAKEAN



Iruña Hiriko Torneo Itxiaren 7. ihardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 3an jokatu. Mario Gomez, 2.450 ELOkoa (Euskal Herria)-Andrej Sokolov, 2.525 ELOkoa (Errusia).

1.d4,Zf6; 2.c4,e6; 3.Zf3,b6; 4.a3, Ab7; 5.Zc3,d5; 6.d5,Zd5; 7.Dc2, Zc3; 8.Dc3,Zd7; 9.Ag5, Ae7; 10.Ae7,Ee7; 11.g3,Zf6; 12.Ag2, Dd6; 13.0-0,hG-c8; 14. b4,c5; 15.d-c5,c5; 16.De3. Ikus koardoa. Txuriek ezkutuko jokaldia daukate. Ef8 litzateke beltzen sendagarria. Baina horretarako, arriskua ikusi behar! Partida erabakita geratuko da. 16...b4; 17.Zh4,Dd7; 18.Zf5 xa,Ef8; 19. Ab7,Db7; 20.Zd6, Db6; 21.Db6, b6; 22.Zc8,Gc8; 23.b4,Zd5. Nola eman amaiera honi? Bide errazena: Taula argitu, piezen trukearen bidez. Txuriek ez dute jokoaren kontrola galduko.

24.fG-c1,Gc1 xa; 25.Gc1, Zb4; 26.Gc7,Zd5; 27.Gb7,g5; 28.f3,Eg7; 29.Ef2,Ef6; 30.e4, Zb4; 31.Gb6,Zd3 xa; 32.Ee3, Ze5; 33.Gb3,h6; 34.Gc3,Eg6; 35.Ed4,Ef6; 36.Ec5,h5; 37.Ed6, g4; 38.f4,Zf3; 39.h4,Zd4; 40. Gd3,Ze2; 41.Ed7,Eg7; 42.Ee7, Eg6; 43.Ef8,Ef6; 44.Eg8,Eg6; 45. Ga3,Zd4; 46.Ga2,Zb3; 47. Ga7,Zd2; 48.e5,f6; 49.f6; Ef6; 50.Eh7,Ze4; 51.Ga3,Ef5; 52. Eh6, Zg3. Zf6 ez da baliagarria. Ge3 jokaldiak apurtuko luke defentsa. 53.Gg3,Ef4; 54.Gg1,g3; 55.Eh5,e5; 56.Eg6. Beltzek men egin zuten, erresistentzia ahalmena guztiz hondatuta.

Fraxkitoren bidaia

Behin, bazen mutil bat Fraxku ize-na zuena baina denek Fraxkito deitzen zioten. Mutil hau oso barkaria zen. Ez zitzaion lagunekin ibiltzea gustatzen eta behin, astoa hartuta mendira joan zen eguna pasatzera. Bidean, ortzadarra ikusi zuen bi mendien artean ateratzen. Ortzadar zoragarri hark, bi mendi horien artean zegoen bete mendi altu bat dizdiratzen zuen eta dizdira horrek fantasiako ukipen bat ematen zion mendiarri. Fraxkito liluraturik gelditu zen mendi horren edertasunaz. Txikitatik ibili ohi zen mendi horien inguruan eta inoiz ez zitzaion iruditu mendi hura hain polita zenik. Honek zeukan zirrarra, bere erraiak barruan piztu zitzaizkion argiaren poderioz, eta berehala haruntz abiatu zen mendi horren edertasuna hobeki ikusteko, baina mendia ez zegoen Fraxkitok ueste zuen bezain gertu. Denbora luzez ibili ondoren, astoa nekatu egin zen eta ez zuen nahi izan aurrera jarraitu. Fraxkitoren zoritxarrez, lurrean etzan zen eta han ez zen asto hura mugituko zuen gizakirik.

Iluntzen hasia zen Fraxkito galduta zegoa konturatu zenerako, eta esan zuen: —zer egingo dugu? nora joango naiz? zer egingo dut mugitu nahi ez duen asto petral honekin? — eta horri buruz hausnartzen ari zela, kobazulo bat ikusi zuen larre handi baten ertzean. Han pentsatu zuen gaua irautea eta astoak handik mugitzeko asmorik erakusten ez zuenez gero, bakarrik joan zen haruntza. Gauerdian, irrintzi batzuk aditu zituen eta esan zuen berekiko: asto kaikua! orain nabaritzen hasi al zara nagusiaren kanporatzean? Arraio halakoa! Ikusiko duzu bai zer den ona, erretxin, ziztrin, gorotz galanta! Eta astoari jaramonik egin gabe lotan jarraitu zuen nahiz eta loak hartzea oisko kosta zeren astoaren irrintziaren oihartzuna izugarri entzuten bait zuen.

Biharamunean, hamaikak aldera jeiki zen Fraxkito. Ez zuen pentsatu hain berandu izango zenik zeren inoiz ez zen hain berandu jeiki izan. Astoa ere han zegoen lurrean etzanda begiak itxirik zituela. Fraxkitok ikusi zuenean astoari txistua egin zion horrela goratuko zen asmotan, baina ez zuen ezta burua altxatu ere egin asto gizarajoak. Fraxkito, izugarri hase-rratu zen astoa goratzeko kontrajarri zenean, eta esan zuen: —asto madarikatua! nagusia berotu nahian habil ala? Baina astoak, lehengo martxan jarraitzen zuen. Ez



Arantxa Eraso

LEITZA



zen saiatu begirik irekitzen ere, orduan Fraxkito sutu egin zen eta ondorioz, astoari ostikoak ematen hasi zen, baina hala eta guztiz ere astoak ez zuen txintxik ere atera, nahiz eta, denbora luzez nagusiak honi jipoituz jardun. Fraxkitok zioen: —Asto hau ez dago sano, erotzen hasia duk! orain konturatzen naiz zergatik saldu zion nire aitari gure herriko Mattinek horren merke animala ziztrin hau. Tentel hutsa duk! Fraxkito izerdi putzutuan zegoen astoa horrenbeste jipoitu ondoren eta astoaren bizkarrean eseri zen atseden pixka bat hartzeko asmotan. Orduan konturatu zen astoa hotzak zegoela eta geroago astoa arretaz begiratu ondoren, infartoz hil zela ondorioztatu zuen.

—Banengoen ba hain asto inozoak ote zeuden munduan zehar sakabanatuak! Ezinezkoa iruditzen zitzaidan— esan zuen

Fraxkitok. Aurreko egunean sobratutako otarteko pare bat zituen motxilan sarturik eta hauekin gosaldutako goiz hartan. Galdu zenez geroztik ez zeukan tentaldira eraman zion mendi zoragarri hartara joateko desiorik, baizik eta etxerako bidea bilatzeko irrikitan zegoen. Bihotz-bihotzez desiatzen zuen honako hau eta dohakabe sentitzen zen berehala lortu ezin zuela ikustean. Gainera orain astorik gabe aurkitzen zen eta bide luzea zegoen mendi honetatik bere etxeraino eta egunak pasa ahala, etxera itzultzeko itxaropenak galdu zituen Fraxkitok, zeren pazientzia gutxiko mutila bait zen hau. Berak zeukan janaria bukatzen hasi zitzaion eta zuhaitzetako fruituez eta mazustez elikatzen hasi zen. Egun batez pentsatu zuen: —etxerako bidea lehen bait lehen ez badut bilatzen gosez eta hotzez hilen naiz. Baina egun batzuk barru, a zer ezuztekoa izan zuen Fraxkitok! Herritar batzuk ikusi zituen han, urrutian. Pôzaren-pozez, ia-ia lokarri bokalak hautsi zitzaizkion Fraxkitori horrenbeste oihukatu ondoren, urrutian ikusten ziren puntu beltz haien (urrutian ikusten den jendearenak) itxura sentitzen. Gehiago ez zen ez mutil bihurri hau etxetik bakarrik mendialderantz joan ezta gauzen itxura zoragarriengatik txunditu ere, bere osabarekin egin zuen bidaian, konturatu bait zen egun hartan ikusi zuen mendi hura ez zela ortzadarraren islada ikusten zen bezain polita, alderantziz; ordurarte Fraxkitok ikusi izan zuen mendirik malkarrena eta zakarrena. Esaerak dioen bezala, itxurak engainatzen du. Hori bai dela egia galanta, bestela galdegiozue Fraxkitori.

JUANTXO URDIROZ

Zikiratu gabeko euskal funtzionariak

Bagoaz sigi-saga. Oraingoan Espainiako XVI-XVII. mendeko gorte aldera garamatza ezustearen berriak. Felipe II.aren agintaldian, esate baterako, 39 erretidazkaritzatik 11 euskaldun ziren. Hori harrigarria bada ere, are harrigarriagoa da zikiratu gabekoak zirela jakitea. Funtzionari-lanpostuak betetzeko bi leinu-talde aritzen ziren norgehiagoka. Alde batetik bizkaitarrak ditugu, betidaniko kristau zaharrak eta aitonen semetasun unibertatsala zeukatenak. Garai hartan bizkaitar hitzarekin euskaldunak izendatzen ziren.

Bestaldetik konbertsuak, euskaldun batek XVI. mendean deitzen zenez, 'jende uerria', makina bat urtetan boterearen arkupean barrena ibilia eta eskarmentu haundiko kudeatzaileak. Erregearen boterea bera kulunkatzen zen euskaldun *versus* konbertsu horretan, estarduaren nori nori banatuz. Euskal funtzionariak hazitakoak ziren, hau da, seme-alabarik izan zezaketen. Bizkaitarrek zuten ezaugarri hau ez omen zegoen funtzionari guztiei garai hartan. Besteekin aldiran aldikoa.

Afera Platon filosofoaren-



Ez usteak zure atean joka

«Euskal funtzionariak hazitakoak ziren, hau da, seme-alabarik izan zezaketen».

gandik datorke. Gizon-emakumeak gizon emakume direino, beraien ondorengoei ahalik eta ondasun gehien ematen saiatzen dira. Ez da harritzeko *res-publicarekin*, auzo-gauza-rekin aritzen direnak denon arkatik noizetik noizera sosa lapurtzeko behar gorrian aurkitzea. Ez da hori ordean nolahi egiteko eginkizuna, gizon-emakumeen arazoizko izaerari dagokionez baizik. Eta hori ekiditeko, honako irtenbide xeble haur otu zitzaizen lehenagokoei, *res-publicarekin* zer ikusi zuten guztiak, edo hobeto esanda, *res-publicatik* zer harturik zeukaten guztiak zikiratzea. Mandatu aplikatzen zenentz ez bait dakigu. Badaukagu esaterik zikiratzea ez zela unibertatsala izan.

Ikus daitekeenez, funtzionari gehienak gizonenak ziren, gizonen soil-soilik aplikatu bait dakieke joko-lege hau. Erreginaren ondra baino gehiago begiratzen zen Estatuaren arka. Guk dakigula, garai hartan ez zen eunukorik Madrilgo gortean.

Neurritz kanpo dirudi erabakiak gaur egungo Administrazioan aplikatu ahal izateko. Bederen 'funtzionariak asko kobratu eta gutxi eginka' beti ari den horrek gainez egingo luke pozez. Funtzionaritza ala aitatasuna. Erabaki gogorragorik hartu beharrean ez da noiznahi aurkitzen funtzionariagaia. Honi buruz informazio gehiago nahi izanez gero, Jon Juaristiren 'La gnosis Renacentista del euskera' izeneko artikuluan aurkituko duzue.

Martxoaren 6an Saran (Lapurdi) hasiko da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Ohi bezala, Iparraldeko bertsolarien partaidetzarekin, azkenean atera da aurrera topaketa, duda-mudak izan baziren ere. Aurten izan den Euskal Herriko Txapelketaren itzalean, gazteek hartu nahi duten erreleboa izanen da denen jakinmina eta garbitu beharrako zorra.

Bertsolarien kalitatearen apustua

E. DIEZ DE ULZURRUN / IRUNEA

Euskal Herriko Txapelketa Nagusiaren oihartzunak itzali ez diren honetan, kantuan hasiko dira nafar eta lapurtar bertsolariak, heldu den martxoaren 6an, Saran. Danetera lau saio izanen dira, hots, bi kanporaketa, finalaurrea eta Saio Nagusia, Lesakan jokatu dena.

Aurtengo lehiaketa molde berriz jantzita etorriko zaigu, eta, bertsolari frankok finaleratzeko parada izanen du, lehendabiziko saioan huts eginda ere. Izanez ere, guztira hamasei bertsolari ariko dira, horietarik zortzi Sarako kiroldegian, martxoaren aurreneko igandean, arratsaldeko 4etan hasita. Hauexek dira: Manolo Arozena txapelduna, Urko Atxutegi Urruñakoa, Txomin Ezponda jatsuarra, Jean Pier Mendiburu Heletakoa, Fermin Mihura azkaindarra, Xabier Silveira lesakar gaztea, Amaia Telletxea arantzarra eta Iñigo Olae-



Inoiz baino aukera gehiago izango dute bertsolariek finalean sartzeko.

nabarrean, iazkoan egindako lanari erreparatuta. Izan ere, joan den urtean Zortziko Txikia izeneko taldea sortu zuten, nafar bertsolari gaztetxo eta gazteak biltzeko, eta, hori ez zen izan hutsetik sortutakoa, urte luzeetan bertso eskolen bitartez eta txapelketaren bidez egindako lanaren emaitza baizik. Lontxo Aburuza elkarteko idazkariaren erranetan, «...txapelketak posible egin du hori dena. Eta orain Nagusiaren ondotik gurea dator, Euskal Herrikoaren itzala bertan dagoenean, zintak eta liburuak sarri kalean, horren emaitzak bizi direnean; bada, horrek denak baldintzatzen du hemengo txapelketa, eta, kalitateari eutsi behar zaio. Horrexegatikan, kopuruz gutxiago arituko dira aurten, eta Nagusian gertatu zen bezala, Nafarroa-Iparraldekoan ere gazetetasuna da ezaugarri bat. Denak 18 urtez gorakoak izanen dira, bi izan ezik, eta, biak, finalista izandakoak».

Aurtengo lehiaketa molde berriz jantzita etorriko zaigu, eta bertsolari frankok finaleratzeko parada izanen du»

lehen saioan huts eginda ere.

txea, hau ere lesakarra. A taldekoak, beraz.

B taldekoak, berriz, Elizondoko Antxitonea trinketeen lehiatuko dira. Toki hori ez zaio bertsolaritzari arrotz eginen, aurten ehun urte bete dituen Antxitoneako pareta zaharrak hameka bertso entzunak baitaude. Honatx trinketeko kantariak: Xalbador urepeldarra, Iholdiko Ernest Alkhat, Estitxu Arozena lesakarra, Jesus Artzallus Hendaian bizi den goiazarra, Bittor Elizagoien arraiozarra, Lesakako Estitxu Fernandez, Laka baigorriarra eta Aitor Telletxea Arantzakoa. Kanporaketa hori arratsaldeko 4,30etan hasiko da, martxoaren 13an.

Saratik eta Elizondotik bina bertsolari, zuzen zuzenean, Lesakarako sailkatuko dira. Eta, 3, 4, 5, eta 6. postuetan gelditzen direnek Burlatako finalaurtean parte hartuko dute, martxoaren 20an. Horratx aurtengo berritasuna, Burlatako saioari sekulako interesa eman diona. Iruñerriko herri kozkor horretatik, jakina, lauk erdietsiko dute Lesakarako txartela. Saio Nagusia, finean, Lesakako pilotalekuan burutuko da martxoaren azken igandean.

Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartetik kalitatearen apustua azpimarratu dute, bide-

Bertsolariak prest

E.D.DE.U. / IRUNEA

■ Karrikan eta euskal irratietan hasi gara txapelketari buruzko hitzak aditzen, gaur egungo txapeldun denak eutsiko ote dion, bertze haretzek kenduko ote dion, gazteak ere kontutan hartzeko, edota, kasu! Baxenafarroako bertsolari andanak baduke zer erran handia. Mugaz iparraldetik zortzi bertsolari arituko dira, eta, bertze horrenbertze, noski, mugaz hegoaldeetik. Seigarren merinaldeko bertsolari frankok badaki zer den txapela eramatea, eta, urtean barrena plazetan arituz gero, gusto handiagoz kantatuko lukete txapelketan. Jean Pier Mendibururen ustez, «bertsolaritzak gibeler egin du Iparraldean, adineko jendea ez

baita etortzen bertso saioetara eta gazteen artean euskara galtzen ari da». Ernest Alkhatek gazteak dauzka gogoan, Lesaka aldean indarrean datozenak, eta, Iparraldean ere bada bertsotan franko poliki dabilen gazterik: «Pozgarria da gazteena ikustea», dio iholdiarrak. «Gu edo ni, neure aldetik, saiatuko naiz nire maila, nire maila txikia agertzen eta naizen hau agertuko naiz, nire alderdi on eta txarrekin».

Eta, Alkhatek aipatzen dituen gazteen artean, Estitxu Arozena dugu, noski, azken urtebete honetan hameka plaza egindakoa. «Horrek», aitortu digu gazte lesakarrak, «lagundu eginen dit urduritasuna kontrolatzera eta bertso maila hobetzera, ez baita saio normala izaten txapelketakoa».

Estitxurekin batera Bortzirietako bertso eskolatik plazaratutakoak izanen ditugu oholtza gainean kantari, eta, sorpresarik espero daiteke koadrila horretatik. Jende aunitz, bertzalde, txirrintaz dabil Manolo Arozena eta Jesus Artzallus saioa nagusian, bekoz beko, ikusteko. Ez ahantzi, hondarreko urteotan, Hendaia auzolagunak ez duela mugaz hegoaldeko saio nagusietan parte hartzerik izan, finalerako txartela kolkoan edukita ere. Aurten ordea, muga zeharkatzerik badu, eta Lesakan izanen da, sailkatuz gero. Eta ez dezagun duela bi urteko txapeldunordea bazterrean utzi, Elizagoien gogoz beterik ibiltzen baita beti, eta aurten ere baztandar prestuak bere manera onak erakutsiko ditu.

Komenigarria da ikastetxeetan egiten den lan handi horri eustea, eta Administrazioaren esku dago hori dena».

Horra, beraz, aurtengo txapelketaren nondik norakoak, mugaz bi aldeak lotzen dituen, eta, bere etorkizuna, irakaskuntzan, bertso eskoletan datzana. Komenigarria da, alde horretatik, ikastetxeetan egiten den lan handi horri eustea, nafar bertsolaritza bide makurrik libratzeko. Orain artean, Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartearen eduki dute egiteko gaitz horren ardura, eta, begi bistakoa da, gaur egun, uzta biltzen hasi gara. Joan den hilabetetik honat ordea, Administrazioaren esku dago hori dena, eta, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Zerbitzuari dagokio zuzen-zuzen jokatzera, mugimendu horrek gibeler egin ez dezan. Eta atzera egitea litzateke, konparazio batera, bertso eskolei sosak murriztea.

Gogoan hartzekoa da gainera, orain artean ez bezalako jarrera ona agertu dutela hemengo zenbait erakundek. Hortxe dago, esate baterako, Nafarroako Aurrezki Kutxa, aurten Principe de Viana erakundearekin batera diru babesle nagusia izanen dena. Gainerakoan, dirua sarreretatik aterako da, baita bertze aurrezki kutxek emanen dutenetik ere. Horien artean, Caja Rural aipatu behar da, Burlatako saioa bere gain hartu duena.



Estitxu Arozena.



Manolo Arozena.

Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkartetik kalitatearen apustua azpimarratu dute, bidena-barrean, iazkoan egindako lanari erreparatuta.

«Ezinezko erronkak maite ditut»

ANA UNANUE / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Asko kosta zitzaizun egunkari berri bat zuzentzeko eskaintza onartzea?

FERNANDO MUJIKA.— Ez, gauza hauek ezin dira gehiegi pentsatu. Ur ertzean zaude, nean bezala, ura oso hotza dagoela pentsatu eta behatza sartzen baduzu, ez duzu sekula salto egingo. Honelako gauzak bat-batean egin behar dira: salto eta igerian hasi. Gainera, neure jaioterrian egunkari berri bat egitea izugarritzko abentura iruditzen zait. 'El Mundo-n' oso eroso nengoen, baina ezerezetik egunkari bat sortzeak asko erakartzen nau. Are gehiago aurrean 'Diario de Navarra' bezalako erraldoi bat edukita. Dinosaurio bat da, zentzu onean, oso azpiegitura sendoa du. Ezinezko erronka zela esan zidatelako onartu nuen, horrelakoak maite baititut: abentura, zailtasunak, Sarajevo...

EGUNKARIA.— 'El Mundo' lanpostua gorde duzu, edo sarerik gabeko jauzia izan da?

MUJIKA.— Sarerik gabekoa, jakina. Egon naizen enpresa guztietan ongi atera zaizkit gauzak eta lagunak utzi ditut leku guztietan. Beraz, 'El Mundo-ra' itzultzeko ere ez nuke eragozpenik izango, baina orain ez dut horrelako burutaziorik.

EGUNKARIA.— Zer-nolakoa izango da 'Diario de Noticias'?

MUJIKA.— Zeharo desberdina, bai itxuraren aldetik, baita edukia dagokionez ere. Diseinua oso modernoa, punta-puntakoa izango da, eta edukia ez du zerikusirik izango egunkari politikoekin. Egunkari politikoak berea egin du; ongi ze goen trantsizio garaian, baina orain gainbehera doa. 2000. urterako bestelako eredu bat behar dugu: utilagoa, zerbitzu gehiago eskainiko dituen. Eguraldiari buruzko informazioa edo kartelera, esate baterako, Clintonen azken adierazpenak bezainbeste zainduko ditugu gure egunkarian. Ez dugu alderdi politiko edota ideologia jakin bat defendituko. Egunkari zabala eta irekia

nahi dugu: Pariseko modaz, Clintonen azalpenez, Oscarrei buruz... denetaz hitz egingo dugu. Nafarroaz ere bai, noski, baina oso modu zabalean. Nafarroa Bordelera, Madrilera eta Bruselara iristen da, ikuspegi zabala izanez gero. Ez dugu egunkari lokalista bat — badakizu, txistorra, txapela eta guzti hori — egin nahi.

EGUNKARIA.— Nola egingo diozue aurre 'Diario de Navarra-ri'?

MUJIKA.— 'Diario de Navarra' erraldoi bat da. Zentzugabea da, beraz, zokoratu egingo dugula pentsatzea, ez da hori gure asmoa. Oso ongi dabilta, iaz ere izugarritzko dirutza ira-


▼
«Egunkari politikoak berea egin du. 2000. urterako bestelako eredu behar dugu: utilagoa, zerbitzu gehiago eskainiko dituen».

editorial jakin batzuk izango ditu, dudarik gabe, baina bere joera politikoak ez gaitu gehiegi kezkatzen. Ez ditugu alderdi politikoak edo presio taldeak defendituko. Entzutea merezi duen jendeari, jende positi-

tugu 50.000 ale aterako. 12.000-15.000 ale salduz gero pozik egongo gara.

EGUNKARIA.— Badakizu Zerua Multimedia-z hamaika zurrumurru daudela: atzean 'Diario de Navarra' dagoela, Opus Dei ere hurbil dabilela, Allizaleak direla...

MUJIKA.— Horiek eta bost aditu ditut, baina errealitatea askoz ere sinpleagoa da, ezagutzen dudana behintzat —azpitik beste operazioen bat badago, nik ez dakit—. Proiektua oso gardena eta normala iruditzen zait: enpresari talde batek dirua dauka eta Nafarroako gizartea dinamizatu, indarberitu behar dela uste du.



Fernando Mujika, 'Navarra Hoy' zenaren bulegoan.

OSKAR MONTERO

bazi zuten... Baina uste dut Nafarroan badagoela beste egunkari batentzako lekua. Are gehiago, beste egunkari bat behar dela iruditzen zait, bestelako pentsamoldea duen jende asko dagoelako, jende gaztea gainera. Gure helburua ez da inori aurrea hartzea, geure bidea egin eta bide horretan hutsune bat betetzea baizik.

EGUNKARIA.— Irizpide editorialak zehaztu beharko dituzue: egunkari berria kontserbadorea ala aurrerakoa, *navarrista* ala abertzalea, zer-nolakoa izango da?

MUJIKA.— Oraindik produktua tajutzen ari gara. Irizpide

boari, emango diogu hitza. Ongi egiten diren gauzen berri eman nahi dugu, positiboak izango gara, egunero inor zirikatzeko ibili gabe.

EGUNKARIA.— 'Navarra Hoy-ren' esperientzia ezagututa, bideragarria irizten diozu proiektu berriari?

MUJIKA.— Bestela ez nintzateke hemen egongo. Badakit egitura ekonomikoak oso itxiak direla eta irudimena, lana eta pazientzia handia beharko dugula horiek irekitzeko. Horretan gaude eta denborak esango du, bideragarritasuna ez baita hilabete batean neurtzen. Jakina, ez di-

Ateak ireki daitezkeela, Nafarroak ikuspegi zabalago bat merezi duela uste dutenez eta, gainera, nahikoa diru daukatenez, komunikabide berri bat abian jartzea erabaki dute. Egunkari batekin dirua irabaztea zaila bada ere, ez dut uste dirua galtzeko asmoz sartu direnik. Hau ez da norbaiten dirua galtzeko sortutako putzua. Proiektu bideragarria izango da behar diren aleak salduz gero, eta saltzen ez baditugu pott egingo dugu. Zurrumuruei dagokienez, ohi denez ia denak faltsuak dira. Ni ez naiz Opusekoa eta ez dut inolako karnetik.

Fernando Mujika

▼
'DIARIO DE NOTICIAS-EKO' ZUZENDARIA



▼
SOSLATA

'El Mundo-tik' Uhartera

Gaztelu plazan sortua, Fernando Mujikak Iruñean bertan egin zituen kazetaritza ikasketak. 1967an amaitu zituen, baina ordurako 'Radio Requete-n' eginak zituen bere lehen elkarrizketak. Geroztik makina bat egunkaritan —'La Gaceta del Norte', 'Deia', 'Diario 16', 'El Mundo'— aritu izan da eta gerra ugari ezagutu du berriemate berezi gisa. 'El Mundo-n' editore grafikoa zen Zerua Multimediai egunkari berri baten ardura hartzea eskaini zionean, eta Mujikak arrenkura handirik gabe utzi du Madril Uhartera etortzeko. 'Navarra Hoy-k' berea egin duela koan, 'Diario de Noticias' zeharo desberdina izango dela dio.

MOSKIJATOR

© Zaldi Erroak

